



## **Euskal herrietatik Euskal Herrira**

Egun on, denoi:

Sinesten dut gaur zuon aurrean esango dudana, eta horregatik eman nuen baietza hemen jarduteko eskaria jaso nuenean. Hori bai, ez noa ezer defendatzera; ez noa inor konbentzitzera. Sinesten dudana hori zuekin konpartitzea da helburua.

Lau ideia-aren bueltan jarduteko eskatu zidan Topaguneko Ikerrek:

- 1) Gizarte-mugimenduaren erronkak.
- 2) Mugimendu BAT gara? Eta izango bagina, zer lortuko genuke?
- 3) Euskal herriak eta Euskal Herria.
- 4) Zertarako Topagunea?

Nik esango dudana baino gehiago dago idatzita dokumentuan, baina niretzat garrantzitsuenak denak entresaka egiten saiatu naiz.

Prest bazaudete, lehen puntuari helduko diot.



## 1) Gizarte-mugimenduaren erronkak:

Gizarte-mugimendua da gurea. Euskararen eta euskaldunon alde egiteko gizarte-mugimendua. Eta horrelako mugimendu batek bete beharreko bi helburu garrantzitsu aitutzen dira dokumentuan:

- gizartea ilusionatzea eta gizarte parte-hartzailea sustatzea.

Instituzioen eta erakundeen diskurtsoak eta politikak auzitan jarri, eta gizartea aldatzeko edo eraikitzeko ardura norberak hartzea da gizarte-mugimendu baten zereginetako bat. Gure kasuan, besteek euskararengatik esaten dutena entzun eta, besterik gabe, irentsi beharrean, guk gure diskurtso propioa osatzea. Edo, beste modu batera esanda, besteek euskararengatik zer egingo duten zain egon beharrean, guk gure esku dagoena egitea. Izan ere, euskara guretzat garrantzitsua bada, gu garrantzitsuak gara euskararentzat, eta ezin gara besteek egingo dutenaren zain egon.

Gizartea mugiarazteko, baina, bi erregai nagusi behar ditugu:

- 1) Ilusioa
- 2) Jakintza

Ilusioa da, beharbada, gure mugimenduaren erregai nagusietakoa. Duela 20-25 urte, euskararen alde lan egiteko modu berri batek sortu zigun ilusioak bultzatuta ekin genion; 2010eko urtariletik gaur arteko bidea, berriz, ziklo berri baten ilusioak zirikatuta egin dugu; gaur Bilbora, mugarría izan daitekeen egun batek sortzen duen ilusioak kili-kili eginda etorri gara; eta astelehenetik aurrera, ilusioari eskutik helduta joango gara euskaldunon etorkizunaren bila.

Herri zahar honen agoni kanpaiak halakoren batean isilduko diren ilusioak bultzatuta dihardugu gure onena ematen. Egunen batean, *“egindako guztiak merezi zuen”* pentsatuko dugulakoan.

Baina ilusioa ez da goitik behera datorren zerbait. Ilusioa sortu egin behar da; ilusioa landu egiten da.

Hamaika modu egongo da seguruenez ilusioaren sua pizteko, baina guk jakintzaren eta pentsamenduaren pospoloak hartuko ditugu. Informazioa energia dela esan zuen Jon Sarasuak Batzorde Txikiaren batzar batean; informazioak mugiarazten gaituela. Txepetxi, berriz, duela 20 urte inguru entzun nion sentimendua pentsamenduarekin igurtziz gero, ilusioa eta mugimendua sortzen direla.

Ilusioak eta pentsamenduak bat egin zuten duela 25 urte, herrietako dinamikek Txepetxekin eta Adorez eta Atseginez Mintegiarekin bat egin zutenean, eta, gure ustez, hala izan beharko du etorkizunean ere. Hogeita bost urteotan gizartea asko aldatu da, eta egokitu egin beharko ditugu euskaingintzari lotutako teoriak eta



diskurtsoak, baina etorkizuneko euskalgintzak fruituak ematea nahi badugu, jakintza eta pentsamendua ondo jorratu eta ureztatu beharko ditugu.

Lehen atal hau amaitzeko, bazkide-militante batek behin esan zidana konpartitu nahi dut zuokin: *“Jende militantea badago, Imanol, baina militante izateko ekintza erakargarriak falta dira euskalgintzan”*. Zer pentsatua eman zidan horrek. Beharbada arrazoia dauka, eta ez dugu asmatu bazkide-militanteak aktibatzeke orduan. Izan ere, euskararen aldeko elkarteak izatea ez da nahikoa bazkideak eta herritarrak gurera erakartzeko. Hori baino zerbait gehiago eskaini behar dugu.

*Sortu*, modan dagoen aditza da, eta guk ere, ekintzaileak ez ezik, sortzaileak ere izan beharko dugu. Akaso gutxiago egin beharko dugu aurrerantzean, baina egiten dugun horrek euskaldun izateko ilusioa piztu behar du gure inguruan.



## 2) Mugimendu bat gara? Eta izango bagina, zer lortuko genuke?

96 elkartek, 20.000 bazkidek, 400 langilek eta 3.000 boluntariok osatutako mugimendu bat al da gurea? Gustura erantzungo genioke baietz galdera horri, baina ez ginateke gure buruarekin zintzoak izango. Zenbaki horiek denak egiak dira, ez dago gezurrik horien atzean, baina ez dugu uste mugimendu BAT osatzen dugula esateko moduan gaudenik oraindik.

Hain zuzen ere, hori da, gure ustez, etapa berrirako erronka potoloenetako bat: euskara elkarten mugimendua artikulatzea eta bateratzea. Badakigu herri eta elkarte bakoitza diferentea dela; badakigu bakoitzak bere herriko errealitateari begira diharduela; badakigu aukerak oso diferenteak direla han eta hemen; badakigu hori dena hala dela, baina, ba al dago euskara-elkarte guztiak su beraren inguruan biltzeko arrazoirik? Ba al dago hain diferenteak garen elkarteak lotzen gaituen sokarik?

Puzzle batean ere pieza bakoitzak bere izaera eta ezaugarriak ditu, ez daude bi berdin; baina denak bildu eta ondo kolokatzen asmatuz gero, puzzlea egoki osatzen da. Pieza guztiak dira beharrezkoak, gainera. Badakigu euskararen puzzlea osatzeko pieza asko falta zaizkigula oraindik; batzuk galdu ere egin ditugu, eta beste batzuk kolore handirik gabe daude; baina, besteak beste, galdu direnak errekuperatu, eta berriak lortzeari ekin nahi diogu etapa berrian. Hori sinistuta esnatu behar dugu astelehen goizean.

96 elkarte, 20.000 bazkide, 400 langile eta 3.000 boluntario. Horiek dira gure mugimenduaren eskaparatean azaltzen diren kopuruak. Zenbaki hotzak dira, nahi baduzue, baina gaur Bilbon bilduko dugun indarrak, grinak eta poz-taupadaz horietako batzuk berotzea eta ilusionatzea lortzen badugu, guk uste baino gehiago egin eta eragiteko gauza izan gaitzke etorkizunean. Ez dugu Egipton eta Tunisian lortu duten iraultzaren antzerakorik sortuko, baina hemen gaudenon eta etorri ez diren beste askoren energiak iraultza txiki bat eragin behar du gure mugimenduan. Gainera, ez daukagu inongo plazarik hartu edo okupatu beharrik; barrura begirako iraultza da.



### 3) Euskal herriak eta Euskal Herria

Herrietatik sortutako mugimendua da gurea. AED Arrasaten sortu zen 1983an, eta haren arrastoan etorri ziren gainerako euskara-elkarteak.

Herrietan dago, beraz, gure mugimenduaren oinarria eta benetako arrazoa. Euskal Herriaren eraikuntza behetik gora egin beharreko prozesua dela sinesten dugu, herrietatik naziora, eta horregatik dihardugu gure herriak euskalduntzen: euskal herriek osatuko dutelako Euskal Herria. Zenbat eta euskal herri gehiago, orduan eta errealagoa izango da Euskararen Herriaren ametsa.

Baina, gure ustez, euskararen etxeak teilatua ere behar du. Oinarriak dira etxeari eutsiko diotenak, konforme, baina teilaturik gabeko etxea beti egongo arriskuan. Euskal herriek Euskal Herria behar dute: Hernanik, Durangok, Atarrabiak edo Laudiok Euskal Herriaren aterpea behar dute.

Beraz, herrietan ez ezik, nazio mailan ere eragin behar dugu. Baina nazio mailako mugimendua izan nahi badugu, gure mugimenduaren mapa osatzen eta orekatzen saiatu behar dugu. Bizkaian eta Gipuzkoan, elkarte-kopuruari dagokionez, sendo gaude, 36 eta 35 elkarterekin, hurrenez hurren, baina Nafarroaren edo Arabaren gainean jartzen badugu fokua, gure eragina asko jaisten dela ikusiko dugu; 16 elkarte gaude Nafarroan, eta 9 Araban. Iparraldean, berriz, ez daukagu bazkiderik.

Herrietatik sortu behar da elkarteak antolatzekeo desioa eta ilusioa, baina gure lana ere bada ez dagoen tokietan eragitea. Iparraldean eragitea premiazkoa da, eta Arabako eta Nafarroako zonalde batzuetan ere saiatu behar dugu.

Aurreko atalean esan dugu moduan, pieza guztiak behar ditugu Euskararen Herriaren puzzlea osatzeko.



#### 4) Zertarako Topagunea?

Euskara-elkarteei laguntzeko eta mugimendua indartzeko sortu zen Topagunea duela 15 urte. Horretan jardun du, besteak beste, hobeto ala okerrago, sortu zenetik gaur arte. Baina Topagunearentzat ere etapa berria dator, eta erabaki egin behar dugu zein diren Topaguneak etorkizunean bete behar dituen funtzioak.

Badakit puntu horretan gogoeta eta eztabaida sakonak izan direla, eta badirudi denok ez gatzela bat txostenean jasotzen denarekin. Niri, printzipioz, aberatsa begitantzen zait iritzi-aniztasuna eta eztabaida. Besteak beste, herrietan txostena irakurri eta aztertu denaren adierazgarri ere bada.

Baina Topaguneak astelehenetik aurrera bete beharko lituzkeen funtzioen gaineko azalpenak ematen hasi aurretik, bi gauzatxo aitatu nahi nituzke, motz-motz:

- 1) Topagunea gu gara; Topagunea gurea da. Topagunetik datorrena ez dator goitik behera; ez da kanpotik datorkigun zerbait. Datorrena datorrela, guk hala nahi eta erabaki dugulako izango da.
- 2) Topaguneko langileak mugimenduko langileak dira. Herrietan lanean dihardugun langileokin batera, euskara-elkarteen mugimenduko langile-sarea osatzen dugu denok.

Hori esanda, haria jostorratzean sartzen ahaleginduko naiz.

Topaguneak, orain arte moduan, barrura begira du lanik handiena. Euskaldunon elkarten mugimendua indartzen eman behar du bere onena. Elkarteei laguntza eskaintzea, bazkideen artean jakintza sustatzea, eta mugimendua saretzea izango dira, beste batzuekin batera, etorkizuneko ardura nagusiak. Badakigu herri bakoitzak atera behar dituela babak eltzetik; badakigu elkarte bakoitzak bere erara antolatuko duela ziklo berria, baina, gure ustez, prozesu horretan Topagunearen laguntza beharko dugu askotan. Adibide bat jarriko dut esan nahi dudana hobeto ulertzeko.

Ilusioa piztu eta bazkideak aktibatzeke jakintza eta pentsamendua lantzea beharrezkoa dela irizten badiogu, herri bakoitza hasiko al da bere langileak, militanteak eta bazkideak janzteko plangintzak prestatzen? Zenbat herritatik deituko diegu Xamarri, Jon Sarasuari edo Julen Arexolaleibari hitzaldiak edo ikastaroak ematera joateko?



Gure ustez, horrelako lanak Topaguneak dinamizatu behar ditu. Eta berdin zait Topaguneak egingo duen lanari koordinazioa edo lidergoa deituko diogun. Benetan inporta zaidana da Topagunea iristea elkarteak iritsi ezin diren tokietara; elkarteok banaka egin edo lortu ezin duguna, Topaguneak eskaintzea. Adibide berarekin segituz, horrek ez du esan nahi Topaguneak formazio-programa bat eskaintzen digunean denok *amen* *jesus* esan behar dugunik. Topagunearen ardura programa prestatzea izango da, eta, gero, elkarte bakoitzak ikusiko du herrira zelan ekarri. Elkarteren batek, gainera, erabakiko balu ez duela programa horren beharrik, arrazoia edozein dela ere, ez litzateke ezer ere pasatuko. Topagunea elkarteei laguntzeko dago, eta ez inor ezertara derrigortzeko. Hori bai, Topaguneko lankideak ezingo ditugu alferrikako lanetan lokaztu. Zerbait behar edo nahi dugula erabakitzen badugu, gero erantzun egin behar dugu.

Baina, gure ustez, Topaguneak ezin du barrura begira bakarrik jardun. Euskara-elkarteen mugimendua ez da isolatuta bizi gure gizartean, eta guri ere eragiten digute kanpoko faktoreek. Faktore horiek gure alde jartzeko ahalegina ere egin behar du Topaguneak. Horretarako ere behar dugu.

Nazio mailako mugimendua ere izan nahi badugu, mugimenduaren ahotsa landu eta zabalduko duen norbait behar dugu, eta funtzio hori Topaguneak bete behar du, gure ustez. Topaguneak landuko ditu etapa berriko mugimenduaren pentsamendua eta diskurtsoa; Topagunea izango da mugimenduaren izena eta izana nazio mailan zabaltzeko eta defendatuko duena; Topagunea izango da erakundeen aurrean euskara-elkarteak eta haien proiektuak defendatuko dituena; Topagunea izango da, beharra dagoenean, presio egiteko ardura izango duena. Topagunea izango da, azken finean, euskara-elkarteok nazio mailan egin eta eragiteko izango dugun erreminta nagusia.

Hori bai, kanpora begira egin eta eragin nahi badugu, aurretik barrura begira indartu behar du mugimenduak. Faltsua eta antzua litzateke herri mailan lortu ezin duguna nazio mailan lortu nahi izatea. Beraz, zenbat eta elkarte eta dinamika sendoagoak lortu herrietan, orduan eta errazagoa izango da nazio mailan eragitea. Zenbat eta proiektu indartsuagoak izan herrietan, orduan eta pisu gehiago izango dugu euskal gizartean.



Amaitu dezadan. Baina, amaitu aurretik, lagako didazue esan dudan guztia hiru ideiatan laburbiltzen:

- 1) Mugimenduko bazkideen artean ilusioa zabaldu behar dugu: pentsamendua eta jakintza landuz eta zabalduz, eta euskaldun izateko ilusioa piztuko duten ekintzak antolatuz.
- 2) Herrietan dago gure eguneroko lana, baina ezin dugu ahaztu Euskararen Herria osatzeko dihardugula lanean. Nazio mailako mugimendua ere izan behar dugu.
- 3) Topagunea denok gara, eta Topagunea behar dugu, bai mugimendu moduan indartzeko, eta baita nazio mailan eragiteko ere.

Eskerrik asko!